

---

## Informazioko Barne Sistema

Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao –  
Arte Ederren Bilboko Museoa Fundazioa

---

Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao – Arte Ederren Bilboko Museoa Fundazioaren Patronatuak, 2/2023 Legean, otsailaren 20koan, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoan (2/2023 Legea), ezarritakoarekin lotuta, ekainaren 7an egindako bilkuran, langileen legezko ordezkariekin kontsultatu ondoren, hau

### ERABAKI DU

**Lehenengoa.**- Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao - Arte Ederren Bilboko Museoa Fundazioaren (aurrerantzean, Fundazioa) Informazioko Barne Sistemaren sorrera onartzea. Sistema hori barneko kanal seguru eta konfidentzial batek osatuko du, eta 2/2023 Legearen 2. artikuluan berorren aplikazio-eremu material gisa zehaztutako ekintzei edo omisioei buruzko informazioak tratatzeko erabiliko da. Horrekin batera, informazio horien tratamendurako eta barne-kudeaketarako baldintza orokorrak onartu dira, eta Fundazioak enplegatutako pertsonak edo beren lan-jarduera dela-eta Fundazioarekin harremana izan dutenek formulatu ahal izango dituzte, Fundazioaren aplikazio-eremu pertsonala ezartzen duen 2/2023 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Bigarrena.**- Fundazioaren Informazioko Barne Sistemaren funtzionamendu-arauak eta Erabaki honen eranskinean jasotako informazioa kudeatzeko eta izapidetzeko prozedura onartzea.

**Hirugarrena.**- Fundazioaren zuzendari Miguel Zugaza Miranda jauna Informazioko Barne Sistemaren arduradun izendatzea, hau da, kudeaketaren arduradun, 2/2023 Legearen 8. artikulua arabera. Bere eginkizunak hobeto betetzeko, Fundazioaren gerentziaren egiturako zerbitzuen laguntza izango du.

**Laugarrena.**- Informazioko Barne Sistemaren xede diren informazioak ahoz nahiz idatziz komunikatzeko aukera emango duen barneko informazio-kanal baten ezarpena onartzea, 2/2023 Legearen 7. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta, horretarako, dagozkion zerbitzu teknikoak kontratatzea.

**Bosgarrena.**- Erabaki honen hirugarren atalean jasotako Informazioko Barne Sistemaren arduradunaren izendapena jakinaraztea berori eratzeko eskumena duen agintaritza autonomikoari edo, halakorik ezean, Informatzailea Babesteko Agintaritza Independenteari, 2/2023 Legearen 8.3 artikuluari jarraikiz.

**Seigarrena.**- Erabaki honen testu osoa, eranskina barne, Fundazioaren webgunean argitaratzea.

bilbao **museoa**

**ERANSKINA**

Informazioko Barne Sistema

Funtzionamendu-arauak eta informazioa kudeatzeko eta izapidetzeko prozedura

**1. Sarrera**

Informazioko Barne Sistema multzo integratu bat da, informazioa eta komunikazioak jasotzeko barne-kanalak eta informazioa kudeatzeko eta izapidetzeko prozedurak osatua, eta Informazioko Barne Sistemaren arduradun baten agintaritzapean funtzionatzen du.

Berorren helburua da bermatzea 2/2023 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren pertsonak gaitasuna izango dutela, irregulartzat jotzen dituzten jokabideen berri dutenean, halakoak jakinarazteko, eta jokabide horien jarraipen eraginkorra egingo dela, erabiltzaileek erabateko independentzia, konfidentziasuna, segurtasuna eta errepresaliarik eza izango dutela guztiz bermatuta.

Informazioko Barne Sistemaren helburua da lan- edo lanbide-testuinguru batean 2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotako ekintzak edo omisioak detektatzen dituzten pertsonak babestea, lege horretan araututako mekanismoen bidez eta modu eta baldintzetan komunikatu ahal izan ditzaten.

Beraz, arau-hausteak eta jardunbide txarrak prebenitzeko, detektatzeko eta ebazteko sistema bat da, eta informatzaile potentzialek eskura duten informazioa erraz eta konfidentziasun osoz eman ahal izatea bermatzen du, Fundazioak aukera izan dezan halakoak ikertu eta haiei buruzko irizpide bat hartzeko, ahal den guztietan.

**2. Aplikazio-eremu materiala**

Gai hauei buruzko informazioak jakinarazi ahal izango dira:

- a) Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hauste izan daitekeen edozein ekintza edo omisio, baldin eta:
  - › Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1937 (EB) Zuzentarauak, 2019ko urriaren 23koak, Batasuneko Zuzenbideko urraketak jakinarazten dituzten pertsonak babesteari buruzkoak, bere eranskinean zerrendatutako Europar Batasunaren egintzen aplikazio-eremuan sartzen badira, barne-ordenamendu juridikoak horien gainean egiten duen kalifikazioa edozein dela ere;
  - › Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badiete, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 325. artikuluan jasotakoaren arabera; edo
  - › Barne-merkatuari eragiten badiote, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 26. artikuluko 2. atalean jasota dagoen moduan, barne hartuta Europar Batasunak lehiaren eta estatuek emandako laguntzen arloan ezarritako arauak haustea, bai eta barne-merkatuari buruzko arau-hausteak ere sozietateen gaineko zergaren arauak hausten dituzten egintzei dagokienez, eta sozietateen gaineko zergari aplikatu beharreko legeriaren xedea edo helburua indargabetzen duen abantaila fiskala lortzea helburu duten jardunbideei dagokienez.
- b) Arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larri izan daitekeen edozein ekintza edo omisio. Nolanahi ere, barne hartuko dira Herri Ogasunari eta Gizarte Segurantzari kalte ekonomikoa eragiten dieten arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larri guztiak.
- c) Babes horrek ez du alde batera utziko prozesu penalari buruzko arauak aplikatzea, ikerketa-eginbideak barne.
- d) Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko lan-zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten langileentzako lege honetan aurreikusitako babesak ez dio kalterik egingo berariazko araudian ezarritakoari.

### 3. Aplikazio-eremu pertsonala

Informazioko Barne Sistemak aukera emango du 2. atalean aipatzen diren arau-haustetzat hartzen diren ekintzei eta omisioei buruzko informazioa jakinarazteko 2/2023 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren pertsona guztiei.

Hala, azalpen-ondorioetarako, Informazioko Barne Sistema honen xedea da Fundazioarekin lan- edo lanbide-harremanak dituzten pertsonak, lan- edo lanbide-harremana amaitu dutenek, boluntarioek, praktiketako langileek edo prestakuntza-aldian daudenek, ordainsaria jasotzen duten eta ez duten bekadunek eta hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenek egindako komunikazioa jaso, kudeatu, izapidetu eta babestea.

Era berean, Fundazioarekin dituzten harreman profesionalengatik, autonomoak eta Fundazioaren kontratisten, azpikontratisten eta hornitzaileen gainbegiratze eta zuzendaritzapean lan egiten duen guztiak hartzen ditu barne.

Informatzaileei laguntza ematen dietenengana eta errepresaliak jasan ditzaketen inguruko pertsonengana ere zabaltzen da. Atal honetan berriaz sartzeko dira langileen legezko ordezkariak, informatzaileari aholkularitza eta laguntza emateko eginkizunetan.

Pertsona juridikoak ere sartzeko dira, baldin eta pertsona horientzat lan egiten badu edo haiekin laneko testuinguru bat mantentzen badu, edo pertsona horiek informatzailearen partaidetza esanguratsua badute.

### 4. Informazioko Barne Sistemaren funtsezko ezaugarriak

Ezarriko den Informazioko Barne Sistemak ezaugarri hauek ditu:

- › Berorren jarduera-eremu pertsonala osatzen duten pertsona guztiei aukera ematen die 2/2023 Legean ezarritako arau-hausteen kategorien berri emateko.
- › Modu seguruan diseinatuta, ezarrita eta kudeatuta dago, halako moldez non informatzailearen eta komunikazioan aipatutako hirugarren ororen nortasunaren konfidentziasuna bermatzen baita, bai eta berori kudeatu eta izapidetzean gauzatzen diren jarduketena ere, eta datuen babesa ziurtatzen da, baimenik gabeko pertsonen sarbidea eragozten delako.
- › Aukera ematen du informazioak edo komunikazioak idatziz edo ahoz edo bi moduetara aurkezteko.
- › Barneko informazio-kanal integratu eta bakar gisa diseinatu eta kudeatzen da, 2/2023 Legean ezarritako ondorioetarako.
- › Aurkeztutako komunikazioak Fundazio barruan modu eraginkorrean tratatu ahalko direla bermatzen da, erakundea bera izan dadin egon daitezkeen irregulartasunen berri duen lehena.
- › Informazioko Barne Sistemaren arduradun bat izendatzen da buru gisa, berorren funtzionamendu autonomo eta segurua bermatu dezan.
- › Publikoa izatea eta interesa izan dezaketen guztiek haren funtzionamendua ezagutzea du xede.
- › Jasotako informazioak eta komunikazioak kudeatzeko eta izapidetzeko prozedura onartzen da.
- › Erakundearen beraren eremuan informatzaileak babesteko bermeak ezartzen dira.
- › Jasotako informazioen eta horien ondoriozko barne-ikerketen erregistro-liburu bat dagoela ezartzen da, 2/2023 Legean ziurtatutako konfidentziasuna bermatzeko, ezertan eragotzi gabe haren izaera ez-publikoa, Legearen 26.1 artikulua arabera.

### 5. Barneko informazio-kanala

Barneko informazio-kanala da Eranskin honen 2. atalean, Informazioko Barne Sistemaren aplikazio-eremu materialari buruzkoan, ezarritako informazio eta komunikazioak jasotzeko bide egokia.

Konfidentziasuna funtsezko baldintza da kanalaren funtzionamendurako. Haren diseinua, ezarpena eta kudeaketa erabiltzailearen edo informatzailearen eta informazioan aipatutako hirugarren pertsonen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzeko printzipioaren arabekoak dira lehentasunez. Segurtasun eta konfidentziasun hori jasotako informazioa kudeatu eta izapidetzeko egiten diren jardueretara zabaltzen da.

Informazioko Barne Sistemaren arduradunak kudeatuko ditu barne-kanalaren funtzionamendua eta eragiketak, eta informatzaileari konfidentziasun hori eta errepresaliarik eza bermatuko dizkio.

## 6. Informazioko Barne Sistemaren arduraduna

Fundazioaren Patronatuak hartutako Erabakiaren arabera, Eranskin hau horren barnean egonik, Fundazioaren zuzendaria izendatzen da Informazioko Barne Sistemaren arduradun, eta, bere eginkizunak hobeto betetzeko, Fundazioaren gerentziaren egiturako zerbitzuen laguntza izango du.

Informazioko Barne Sistemaren arduradunari dagokio sistema osoa jarduera-eremu bakoitzean kudeatzeko ardurak, eta haren xede diren informazio eta komunikazioak arduraz izapidetu beharko ditu. Erabateko autonomia du bere eginkizunak betetzeko, eta bere irizpidea legeak ezarritakoari soilik dago lotuta; hala, ezin du inolako jarraibiderik jaso bere jardunean, eta bere eginkizunak gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ditu.

Informazioko Barne Sistemaren arduradunak konfidentziasun- eta segurtasun-berme osoak emango ditu kudeatzen eta izapidetzen duen informazioari dagokionez.

Hauek dira Informazioko Barne Sistemaren arduradunaren eginkizunak:

- › Bere kabuz edo laguntza gisa esleitutako egituraren bidez, barne-kanalean jasotako komunikazio eta informazioei dagozkien egiaztapen-lanak egitea.
- › Komunikazio eta informazio horiek kudeatu eta izapidetzea.
- › Kasu bakoitzean dagozkion egiaztapenak egin ondoren, informazioak eta komunikazioak izapidetzen amaitzeko gomendio arrazoitua ematea.
- › Horretarako sortutako datu pertsonalen fitxategiaren kudeaketa operatiboa egitea.
- › Komunikazioak eta informazioak aurkezteko legimitatuta dauden pertsonen, enplegatuek eta gainerakoek jardun dezaketela eta segurtasuna eta konfidentziasuna mantentzen dutela zaintzea, fede onez diharduenari inolako kalterik eragin gabe.
- › Gertakariak egiaztatzekeo prozesuan, interesdunei behar bezalako babesa ematea.
- › Urteko memoria egitea eta Patronatuari aurkeztea, horren berri izan dezan.
- › Prestakuntzako eta prebentzioko neurriak bultzatzea, Informazioko Barne Sistemaren eremu materialaren aurkako jarduketan aurrean.
- › Informazioko Barne Sistemari aplikagarri zaizkion prozedura eta arauen inguruan egon daitezkeen interpretazio-zalantzak argitzea, bereziki araudi hau integratze aldera.

## 7. Informazioak jasotzea

Barne-kanalaren bidez aurkeztutako komunikazioa eta informazioa modu anonimoan egin daiteke. Bestela, informatzailearen nortasuna gordeko da, eta ezin izango zaie hirugarrenei jakinarazi.

Komunikazioa eta informazioa idatziz, postaz eta horretarako gaitutako edozein bitarteko elektronikoz bidali ahalko da barneko informazio-kanalera, baita ahoz, telefonoz eta ahots-mezularitzako sistemen bidez ere. Informatzaileak eskatuta, aurrez aurreko bilera baten bidez ere aurkeztu ahal izango da, eskabidea egin eta gehienez zazpi eguneko epean, ez

egiteko berriaz justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik. Ahoz egindako komunikazioaren kasuetan, informatzaileari ohartaraziko zaio komunikazioa grabatu egingo dela, eta bere datuen tratamenduaren berri emango zaio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen prozesamenduan eta datu horien zirkulazioan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua [Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra] indargabetzen duena) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa) ezarritakoari jarraikiz.

Informazioa aurkeztean, informatzaileak helbide, posta elektronikoko edo toki seguru bat adierazi ahal izango du jakinarazpenak jasotzeko, eta berriaz uko egin ahal izango dio aurkeztutako informazioaren ondorioz Informazioko Barne Sistemaren arduradunak gauzatutako edozein jarduketaren inguruko jakinarazpenak jasotzeari.

Ahoz egindako komunikazioaren kasuan, barne hartuta aurrez aurreko bilera batean, telefonoz edo ahots-mezularitzako sistema baten bidez egindakoak, Informazioko Barne Sistemaren arduradunak modu hauetakoren batean dokumentatu beharko du:

- › elkarrizketa osorik grabatzea formatu seguru, iraunkor eta irisgarri batean, edo
- › tratamenduaz arduratzen diren langileek elkarrizketaren transkripzio oso eta zehatz bat egitea, transkribatzaileari informatzailearen berme eta segurtasunerako 2/2023 Legean jasotako konfidentzialtasun-betebehar guztiak aplikatuz.

Ezertan eragotzi gabe datuen babesari buruzko araudiaren arabera dagozkion eskubideak, informatzaileari aukera emango zaio aurrez aurreko bileraren mezu edo edukiaren transkripzioa egiaztatu, zuzendu eta sinadura bidez onartzeko.

Informazioa aurkeztu ondoren, Informazioa Kudeatzeko Sistemari (IKS) erregistratuko da, eta identifikazio-kode bat esleituko zaio. IKSa Informazioko Barne Sistemaren arduradunak soilik atzi dezakeen datu-base seguru batean egongo da, eta han erregistratuko dira jasotako komunikazio guztiak, datu hauek betez:

- › Jasotze-data
- › Identifikazio-kodea
- › Gauzatutako jarduketak
- › Hartutako neurriak
- › Ixte-data

Informazioa barne-kanaleko edozein bidetatik jaso ondoren, gehienez ere bost egun balioduneko epean, informazioa jaso dela adieraziko da, informatzaileak ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeari berriaz uko egin dionean edo Informazioko Barne Sistemaren arduradunak, arrazoituta, informazioa jaso izanaren agiriak informatzailearen nortasuna arriskuan jar dezakeela uste duenean izan ezik.

## 8. Onartzeko izapidea

Informazioa IKSan erregistratu ondoren, Informazioko Barne Sistemaren arduradunak 2/2023 Legearen aplikazio-eremu materialean dauden egitate edo jokabideak azaltzen dituen egiaztatu beharko du.

Aurretiazko azterketa hori egin ondoren, Informazioko Barne Sistemaren arduradunak zera erabakiko du, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, informazioa IKSan erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita:

- a) Komunikazioa ez onartzea:
  - › Kontatutako egitateek objektiboki inolako sinesgarritasunik ez dutenean.
  - › Kontatutako egitateak ez direnean 2/2023 Legearen aplikazio-eremu materialean sartutako ordenamendu juridikoaren arau-haustekak.

- › Komunikazioak ez duenean ageriko funtsik edo, Informazioko Barne Sistemaren arduradunaren iritziz, delitu baten bidez lortu direlako arrazoizko zantzuak daudenean. Azken kasu horretan, ez onartzeaz gain, delitutzat jotzen diren egitateen zerrenda xehea igorriko zaio Fiskaltzari.
- › Jakinarazpenak ez duenean arau-hausteei buruzko informazio berri eta esanguratsurik dagozkion prozedurak amaituta dituen aurreko komunikazio batekin alderatuta, izapidetze eta erabaki berri bat justifikatzen duten egitezko edo zuzenbidezko inguruabar berriak daudenean izan ezik. Halakoetan, Informazioko Barne Sistemaren arduradunak arrazoituta jakinaraziko dio ebazpena informatzaileari.

Informatzaileari erabakia hartu eta hurrengo bost egun baliodunen barruan emango zaio ez-onartzearen berri, komunikazioa anonimoa bada edo informatzaileak Informazioko Barne Sistemaren arduradunaren komunikazioak jasotzeari uko egin badio izan ezik.

- b) Komunikazioa izapidetzeko onartzea. Informatzaileari erabakia hartu eta hurrengo bost egun baliodunen barruan emango zaio izapidetzea onartzearen berri, komunikazioa anonimoa bada edo informatzaileak Informazioko Barne Sistemaren arduradunaren komunikazioak jasotzeari uko egin badio izan ezik.
- c) Informazioa berehala bidali behar zaio Fiskaltzari, egitateak zantzuen arabera delitu izan daitezkeenean, edo Europako Fiskaltzari, egitateek Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badiete.
- d) Hala eskatzen duten beste arau-hausteen kasuan, jakinarazpena izapidetzeko eskuduntzat jotzen den agintari, erakunde edo organismoari bidali behar zaio.

## 9. Instrukzioa

Instrukzioak barne hartuko ditu emandako informazioan edo igorritako komunikazioan azaldutako egitateen sinesgarritasuna eta inguruabarrak egiaztatzeko jarduketa guztiak.

Informazioaren eraginpeko pertsonak informazio horren eta azaldutako gertakarien berri izatea bermatuko da. Horrez gain, alegazioak idatziz aurkezteko duen eskubidearen eta datu pertsonalen tratamenduaren berri emango zaio. Hala ere, informazio hori auzitegiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta uste bada informazio hori lehenago aurkezteak frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea erraztu dezakeela.

Eraginpeko subjektuei ez zaie inola ere jakinaraziko informatzailearen nortasuna, eta ez zaio komunikazioa helaraziko. Instrukzioan, ikertutako pertsonari egitateen zerrenda labur baten berri emango zaio. Informazio hori auzitegiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta uste bada informazio hori lehenago aurkezteak frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea erraztu dezakeela.

Ezertan eragotzi gabe alegazioak idatziz egiteko eskubidea, instrukzioak, ahal den guztietan, eraginpeko pertsonarekin elkarrizketa bat egitea barne hartuko du. Elkarrizketa horretan, betiere errugabetasun-presuntzioa erabat errespetatuz, egitateen inguruan duen bertsioa azaltzeko eta egokitzat jotzen dituen frogabideak aurkezteko gonbita egingo zaio.

Eraginpeko pertsonaren defentsa-eskubidea bermatze aldera, pertsona horrek espediente atzitu ahal izango du, informatzailea identifika dezakeen informazio jaso gabe, eta edozein unetan entzun ahal izango zaio; gainera, abokatuaren laguntza izateko aukera duela ohartaraziko zaio.

Informazioko Barne Sistemaren arduradunari laguntzeko izendatutako Fundazioaren gerentziako egiturako pertsonak, ikerketako jarduerak egiten badituzte edo informazioa, osorik edo zati batean, eskuratzeko aukera badute, horiei buruzko sekretua gorde beharko dute nahitaez.

Fundazioko langile guztiek Informazioko Barne Sistemaren arduradunarekin lankidetzan jardun beharko dute, eta izapidetzen ari diren prozedurekin lotutako dokumentazioa, datuak edo beste edozein informazio eta eskatzen zaizkion datu pertsonalak aurkezteko egiten zaizkion eskakizunei erantzun beharko diete.

## 10. Jarduketan amaiera

Izapideak eta jarduketak amaitu ondoren, Informazioko Barne Sistemaren arduradunak txosten bat egingo du, eta alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

- › Kontatutako egitateen azalpena, komunikazioaren identifikazio-kodea eta IKSan erregistratzeko data.
- › Komunikazioaren sailkapena, izapidetzean lehentasuna duen edo ez jakiteko.
- › Egitateen sinesgarritasuna egiaztatzeko egindako jarduketak.
- › Instrukzioan lortutako ondorioak eta horien oinarri diren eginbideen eta zantzuen balorazioa.

Txostena egin ondoren, Informazioko Barne Sistemaren arduradunak erabaki hauetakoren bat hartuko du:

- › Espedientea artxibatzea, eta informatzaileari eta, hala badagokio, eraginpeko pertsonari jakinaraztea. Halakoetan, informatzaileak eskubidea izango du 2/2023 Legean jasotako babesak jasotzeko, salbu eta instrukzio-fasean egindako jarduketak ikusita informazioa ez zela onartu behar ondorioztatzen bada, izapidea onartzea arautzen duen aurreko atalean horretarako ezarri den arazoietako bat dagoelako.
- › Fiskaltzari igortzea, baldin eta, hasiera batean egitateak delitutzat jotzeko zantzurik ikusi ez arren, instrukzioan zehar hala ondorioztatzen bada. Delituak Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badie, Europako Fiskaltzara bidaliko da.
- › Jardundako guztia eskumena duen agintaritzari helaraztea, gaiaren eta izapidetutako edukiaren arabera.
- › Hala badagokio, diziplina- edo zehapen-prozedura bat hasteko erabakia hartzea.

Jarduketak amaitzeko eta txostena egin eta, hala badagokio, informatzaileari jakinarazteko epea ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, informazioa IKSan sartzen denetik zenbatzen hasita. Erabakia edozein dela ere, informatzaileari jakinaraziko zaio, horri uko egin dionean edo komunikazioa anonimoa denean izan ezik.

Informazioko Barne Sistemaren arduradunak ezarritako informazioak izapidetu eta erabakitzean hartutako erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri administrazio- eta jurisdikzio-bidean.

## 11. Informatzaileen eskubide eta betebeharrak

Informatzaileek eskubide hauek izango dituzte:

- › Komunikazioa modu anonimoan edo ez-anonimoan egin nahi duen erabakitzea; bigarren kasu horretan, informatzailearen nortasuna gordetzea bermatuko da, eta ez zaie hirugarrenei jakinaraziko.
- › Komunikazioa ahoz edo idatziz egitea.
- › Informazioko Barne Sistemaren arduradunak ikerketari buruz egiten dituen komunikazioak jasotzeko helbide, posta elektronikoa edo leku seguru bat adieraztea.
- › Hala badagokio, Informazioko Barne Sistemaren arduradunaren komunikazioak jasotzeari uko egitea.
- › Informazioko Barne Sistemaren arduradunaren aurrean agertzea, bere ekimenez edo hala eskatzen zaionean, eta, hala badagokio, eta egokitzen jotzen badu, abokatu baten laguntza izatea.
- › Informazioko Barne Sistemaren arduradunari eskatzea bideokonferentzia bidez edo informatzailearen nortasuna eta komunikazioaren segurtasuna eta fideltasuna bermatuko duten beste bitarteko telematikoa seguru batzuen bidez ager dadila haren aurrean.
- › Datu pertsonalak babesteko legeriak ematen dizkion eskubideak erabiltzea.
- › Salaketaren izapidearen egoera eta ikerketaren emaitzak ezagutzea.



Informatzaileek betebeharrak izango dituzte:

- › Barneko informazio-kanala erabiltzen duenak arrazoizko zantzuak edo nahikoa zantzu izan behar ditu jakinarazten duten informazioaren ziurtasunari buruz, eta ezin izango da egin komunikazio orokorrik, fede txarrekorrik edo eskubide-abusuz egindakorik.
- › Informatzaileak behartuta daude jakinarazten dituzten egitate edo jokabideak ahalik eta zehatzen deskribatzera, eta deskribatutako egoerari buruzko dokumentazio guztia edo ondorioak ateratzeko zantzu objektiboak eman behar dituzte.
- › Informatzailea arduratuko da haren komunikazioa identifikatzen duen kode alfanumerikoa zaintzeaz eta hura erabiltzeaz, segurtasun-neurri egokiak hartuta, Informazioko Barne Sistemaren arduradunarekin harremana mantentzeko eta informazio garrantzitsua gehitzeko soilik.

## **12. Jakinarazitako jokabidea egozten zaion pertsonaren eskubideak eta betebeharrak**

Informazioko Barne Sistemaren aplikazio-eremu materialaren definizioaren arabera ordenamendu juridikoaren aurkako jokabidea egozten zaion pertsonak eskubide eta betebeharrak dituzte:

- › Diskrezio eta konfidentzialtasun handiena egitateak egiaztatzean eta, oro har, barneko komunikazio-kanalaren eta IKSaren kudeaketa osoan.
- › Aurkeztutako jakinarazpenaren berri berehala jasotzeko eskubidea, Informazioko Barne Sistemaren arduradunak, arrazoituta eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera, egitateak egiaztatzearen mesedetan sekretua mantentzea beharrezkotzat jotzen duenean izan ezik.
- › Ez da haien izenak aipatuko dituen gomendiorik emango ez ondoriozko aterako, zuzenean nahiz zeharka, jakinarazitako egitateak ezagutzeko eta beren iritzia berri emateko benetako aukera izan duten arte.
- › Ez da inolako informazio eta datuak ez dira lagako, harik eta egitateak egiaztatu ondoren jakinarazitako jokabidea egiazkoa edo segurua dela agerian utzi arte. Agintari judizial edo diziplinazko agintari eskudunari datuak jakinarazteko, ez da beharrezkoa izango aldez aurretik erantzuleari jakinaraztea.

Betebeharrak dagokienez, jakinarazitako jokabidearen erantzule diren pertsonak behartuta daude gertakariak egiaztatzen laguntzera, eskura dituzten eta Informazioko Barne Sistemaren arduradunak eskatzen dituen informazioa eta dokumentazioa emanez.

## **13. Datu pertsonalen tratamendua**

Barneko komunikazio-kanalaren Informazioko Barne Sistema aplikatzearen ondoriozko datu pertsonalen tratamendua arau hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen prozesamenduan eta datu horien zirkulazioan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa; eta 2/2023 Legearen VI. tituluko aurreikuspenak.

## **14. Barneko informazio-kanalari buruzko informazioa**

Fundazioaren webgunean, bereizita eta erraz identifikatzeko moduan, ezarritako barneko informazio-kanalaren erabilerari buruzko eta kudeaketa-prozeduraren funtsezko printzipioei buruzko informazio egokia argitaratuko da, modu argi eta eskuragarri batean.

## **15. Babes-baldintzak**

2/2023 Legearen VII. tituluarekin bat etorritik, arau-hauste izan daitezkeen jokabideak jakinarazten dituzten pertsonak aipatutako legean ezarritako babeserako eskubidea izango dute, baldin eta bi inguruabar hauek gertatzen badira:

- › Komunikazioaren edo jakinarazpenaren unean zentzuzko arrazoiak badaude aipatutako informazioa egiazkoa dela pentsatzeko, nahiz eta frogak eztaba daezinik ez aurkeztu, eta informazio hori 2/2023 Legearen aplikazio-eremuaren barruan sartzen bada.
- › Komunikazioa edo jakinarazpena 2/2023 Legean eta araudi honetan jasotako eskakizunen arabera egin bada.

Berriaz geratzen dira 2/2023 Legean jasotako babesetik kanpo informazio hauek komunikatu edo jakinarazi dituzten pertsonak:

- › Barneko informazio-kanalen batek baztertu dituen edo 2/2023 Legean edo araudi honetan aurreikusitako arazoirekin batengatik baztertu diren komunikazioetan jasotako informazioak.
- › Pertsonen arteko gatazken ingurukoak diren edo informatzaileari eta komunikazio edo jakinarazpenean aipatutako pertsonari soilik eragiten dieten erreklamazioekin lotutako informazioak.
- › Dagoeneko jendearentzat erabat eskuragarri dauden edo zurrumurru hutsak diren informazioak.
- › 2/2023 Legearen eta araudi honen aplikazio-eremuan sartzen ez diren ekintzei edo omisioei buruzko informazioak.

Ekintza edo omisioren bati buruzko informazioa publikoki modu anonimoan komunikatu edo jakinarazi ondoren identifikatu diren eta Eranskin honetan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsonak 2/2023 Legean ezarritako babesa jasotzeko eskubidea izango dute.

## **16. Errepresaliak debekatzea**

Berriaz debekatzen dira araudi honetan jasotakoari jarraikiz komunikazio bat aurkezten dutenen aurkako errepresaliako egintzak, barne hartuta errepresalia-mehatxuak eta errepresalia-saiakerak.

2/2023 Legearen 36.2 artikulua arabera, errepresaliatzen hartzen da legeak debekatzen duen edo zuzenean nahiz zeharka tratatu kaltegarri bat dakarren edozein ekintza edo omisio, baldin eta horiek pairatzen dituzten pertsonak lan- edo lanbide-testuinguruan beste pertsona batekiko desabantaila berezian jartzen baditu, informatzaile izate hutsagatik edo jendaurreko errebelazio bat egiteagatik.